



II. ERANSKINA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

2020-21 ikasturteko curriculum-antolamendua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-antolamendua Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum-a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 15. artikuluan jasotakoa da.

Ebaluazioaren izaera

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ebaluazioa banakakoa, **etengabekoa eta curriculumeko irakasgai eta esparruen arabera bereizia** izango da, eta dekretu horretan ezarritako konpetentzia guztiak kontuan hartuko ditu. Ikasleen ikaskuntzen ebaluazioa hezitzailea izango da, behaketan, jarraipenean eta eguneroko lanean oinarritua, eta irakasteko zein ikasteko prozesuak hobetzeko tresna izango da.

Ikasturte amaierako ebaluazioa

Ikasturte hasieran egin zen hasierako ebaluazioari esker ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera eta taldearen egoera orokorra ezagutu ahal izan ziren, programazio didaktikoetan egin beharreko doikuntzak egiteko.

Ikasturtean zehar, irakasle taldeek informazioa bildu dute ikasle bakoitzak arlo bakoitzean ezarritako helburuak lortzeko eta konpetentziak garatzeko egin duen aurrerapenari buruz. Aurrerapen horren jarraipena irakasleen arteko koordinazioaren eta ikasturtean zehar egindako ebaluazio-saioen bidez egin da, eta dagozkion ebaluazio-aktetan islatuta geratu da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **ikasturte bakoitzaren amaieran**, ikasleek lortutako emaitzen azken ebaluazioa egingo dute talde bakoitzari eskolak ematen dizkieten irakasleek. Irakasgai bakoitzaren kalifikazioan oinarrizko konpetentzia guztien lorpen-maila kontuan hartuko da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **maila bakoitzeko ebaluazioaren emaitzak** honela adieraziko dira: Gutxiegi (G) kalifikazio negatiboetarako, eta Nahikoa (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO) edo Bikain (BI) kalifikazio positiboetarako. Horiekin batera, zenbakizko kalifikazioa adieraziko da, hamartarrik erabili gabe, batetik hamarrerako eskalan, honako korrespondentzia hauekin:



Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4
Nahikoa: 5
Ongi: 6
Oso Ongi: 7 edo 8
Bikain: 9 edo 10

Ikasleren bat **Euskara eta Literatura ebaluatzeaz salbuetsita** dagoenean, Salbuetsia (SB) adieraziko da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran **ohiko azken ebaluazioa** egingo da, hots, etengabeko ebaluazioari amaiera emango diona, eta **ezokiko azken ebaluazioa** ere egingo da, gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleak ebaluatzeko.

Ezohiko azken ebaluazioa borondatezkoa da ikasleentzat, baina nahitaez eskaintzekoa ikastetxearentzat.

Ikasleren bat **ezohiko deialdian** aurkezten ez bada, Ez aurkeztua (EA) adieraziko da. Adierazpen hori ezohiko deialdian bakarrik ager daiteke.

Emaitzen balorazioa ebaluazio-dokumentuetan jasoko da, **irakasgai bakoitzeko kalifikazioak** eta **oinarrizko konpetentzietan eskuratutako maila** adierazita.

Ebaluazio-taldeak kide guztien artean erabakiko du ikasle bakoitzak erdietsi duen oinarrizko konpetentzien lorpen-mailari buruz, eta maila hori **Hasierakoa, Ertaina edo Aurreratua** den adieraziko du.

Ikasleek **eskuratutako konpetentzia-maila Eskola-orientazioaren banakako txostenean** islatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza amaitzean. Txosten hori Notak eta Hutsegiteak aplikazioan egiten da eta informazioa **Ikasketen Historiara eta Espedientera** helarazten da.

Hartzen diren erabaki nagusiak, mailaz igotzekoa barne, eta akordioak mailari dagokion **ohiko azken ebaluazio-saioaren aktan** jasoko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan egingo da **ezohiko ebaluazio-saio** bat, ohiko azken ebaluazioan irakasgai guztiak gainditu ez dituzten ikasleentzat.

Halaber, ikaslea mailaz igotzeari buruzko erabakia hartuko da, eta, hala badagokio, ikasleak ikasteko prozesuan aurrera egin ahal izateko hartu behar diren indargarriak adieraziko dira.

Aurreko mailetan gainditu gabeko irakasgairen bat duten ikasleen kasuan, irakasgai horiek gainditu dituzten baloratzeko saioak egingo dira. Maila posible bakoitzerako (1., 2. eta 3. mailak) egingo diren saio horiek “akta osagarriak” izenekoetan jasoko dira.



Ikasleak mailaz promozionatzea

Irakasle taldeak, ikasle talde bakoitzaren irakasle guztiek osatuta eta talde horren tutoreak koordinatuta, **kide guztien artean erabakiko du**, etapako helburuak lortu diren eta dagozkion konpetentziak zenbateraino eskuratu diren kontuan hartuta, ikasle bakoitza hurrengo mailara **igaroko den** ala ez. Irakasle taldeak **adostasunik lortzen ez badu**, urtebetez maila berean jarraitzeko erabakia, **gutxienez**, ikaslearen irakatsi eta ikasteko prozesuan esku hartzen duen **taldeko kideen bi herenek** hartuko dute.

Oro har, ikasleak **mailaz igoko dira gutxienez egin behar dituzten irakasgai guztiak** gainditu dituztenean, edo **gehienez bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa** dutenean. Maila errepikatuko dute hiru irakasgaitan edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean.

Salbuespen gisa, **hiru irakasgaitan edo gehiagotan** ebaluazio negatiboa duen ikasle bat mailaz igotzea erabaki ahal izango du irakasle taldeak, baldin eta:

- Ikasleak gutxienez tarteko maila lortu badu oinarrizko konpetentzia guztietan.
- Irakasle taldearen iritziz, ebaluazio negatiboa duten irakasgaien izaerak ikasleak hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea eragozten ez badu, ikasleak erreuperatzeko itxaropen onak baditu eta mailaz igotzea ikaslearen bilakaera akademikorako onuragarria izango bada.

Erabaki horretan bereziki kontuan hartuko da orientazio-aholkuan jasota dagoen ikasleak eskuratutako konpetentzia-maila.

Mailaz igotzen ez den ikasleak urtebetez jarraitu beharko du maila berean. Neurri hori **behin bakarrik** hartu ahal izango da maila berean, **eta gehienez bi aldiz etaparen barruan**.

Etapan bigarren errepikapen hori hirugarren edo laugarren mailan gertatzen denean, ikasleak eskubidea izango du erregimen arruntean oinarrizko irakaskuntza egiten jarraitzeko, hemeretzi urte betetzen dituen ikasturtearen amaierara arte. Salbuespen gisa, bigarren aldiz errepikatu ahal izango du laugarren maila, baldin eta etaparen aurreko mailetan errepikatu ez badu.

Errepikatzea salbuespenezko neurria izango da, eta ikaslearen ikasteko zailtasunak gainditzeko gainerako ohiko indargarriak eta laguntza-neurriak agortu ondoren hartuko da.

Curriculum-baldintzak ikaslearen beharretara egokitzeko moduan eta hautemandako zailtasunak gainditzera bideratuta egon daitezen ezarriko dira errepikapenak. Neurri horrekin batera, aurreko mailan hautemandako zailtasunak gainditzera bideratutako plan espezifiko pertsonalizatua egin beharko da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hainbat mailatan izendapen bera duten irakasgaiak irakasgai desberdintzat hartuko dira gainditu gabeko irakasgaien kopurua zenbatzerakoan.

Ikastetxe bakoitzaren berezko irakasgaiak ez dira zenbatuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mailaz igotzeko.



Irakasgai guztiak gaingitu gabe mailaz igotzen direnek gaingitu ez dituzten irakasgaietan matrikulatu beharko dute, irakasle taldeak ezarriko dituen **indargarri-programak** beteko dituzte eta indargarri-programa horiei dagozkien ebaluazioak gaingitu beharko dituzte.

Errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak **hurrengo mailara igarotzeko baldintzak betetzen ez baditu**, irakasle taldeak, orientazio-sailak aholkatuta eta familiari informazioa eman ondoren, pertsona horrek bere ikasketekin jarraitzeko dauden aukerei buruzko **orientazio-aholkua** emango du, ikaslearen beharrak eta interesak kontuan hartuta.

Ebaluazio-dokumentu ofizialak

DBHko ebaluazio-dokumentazio akademikoari eta hori betetzeari eta baliozkotzeari buruzko oinarritzko alderdiei dagokien guztia ebazpen honen IV. eranskinean jasota dago.

Ikasleentzako eta gurasoentzako edo haien legezko tutoretza dutenentzako informazioa.

Ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuan parte hartu beharko dute, ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabakiak ezagutu beharko dituzte, eta ikastetxeek haien hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri edo indargarrietan lagundu.

Ikasleek beren eskola-errendimendua objektibotasun osoko irizpideen arabera baloratzeko duten eskubidea bermatze aldera, ikasturtearen hasieran, ikastetxeak ezarritako prozeduraren arabera, sail didaktikoei eta irakasle taldeek ikasleei, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi behar izan dizkiete, ikaslea adingabea denean, irakasgai bakoitzaren helburuak eta ebaluatzeko, kalifikatzeko, mailaz igotzeko eta titulazioa lortzeko irizpideak.

Gainera, ikasturtean zehar, tutoreak eta, hala badagokio, irakasgai bakoitzeko irakasleak, seme-alaben hezkuntza-prozesuaren berri eman diete.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasle taldearen aholkularitzarekin, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza jasoko duen **azken ebaluazioaren ondorengo txostena** egingo du. Txosten horretan jasoko dira arlo bakoitzean lortutako kalifikazioak, eskola-errendimenduari, gizarte- eta hezkuntza-integrazioari eta, hala badagokio, aurreikusitako indargarri eta laguntza-neurri orokorreari buruzko informazioa, oinarritzko konpetentzien eskuratzeko-maila eta mailaz igotzeko eta, kasuaren arabera, titulazioa emateko erabakia. **Orientazio-aholkua** ere jasoko du.

Banakako txosten horren **kopia** bat ikaslearen gurasoei edo **legezko tutoreei** entregatuko zaie.

Jarraibide horien 1. eranskinean eskaintzen dira **banakako txostenen orientazio-ereduak** eskuratzeko estekak.

**Berrikusteko eta erreklamatzeko prozedura.**

Ikusi jarraibide hauen V. ERANSKINA.

Titulazioa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako batez besteko nota.

Titulua lortzeari buruzko erabakiak taldean hartuko dituzte ikaslearen irakasleek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean oinarrizko konpetentziak eta etapa horretako irakasgaien helburuak erdietsi dituen ikasleak **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua** lortuko du.

Tituluan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren azken kalifikazioa jaso beharko da.

Etaparen **azken kalifikazioa** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioen batezbestekoa izango da, 1etik 10era bitarteko eskalan adierazia, bi hamartarrekin, ehunenera biribildua. Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 15. artikuluan aipatutako blokeetako bakoitzean ikasleak gutxienez ikasi behar dituen irakasgaiak bakarrik zenbatuko dira. Ondorio horietarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hainbat mailatan izendapen bera duten irakasgaiak irakasgai desberdintzat hartuko dira.

Halaber, **titulu hori lortu ahal izango dute laugarren maila irakasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboarekin** amaitu dutenek, baldin eta irakasle taldearen iritziz ebaluazio negatiboa duten irakasgaien izaerak ez badie eragotzi oinarrizko konpetentziak eta etapako irakasgaien helburuak erdiestea.

Titulua lortu ahal izango dute, halaber, **curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bat** egin ondoren, esparruak gainditu eta etapa **irakasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboarekin** amaitu dutenek, aurreko atalean ezarritako baldintzekin.

Titulazioa lortu ez dutenek gainditu ez dituzten irakasgaien ezohiko proba bat egin ahal izango dute etapako ikasketak amaitu dituzten ikastetxean, **hurrengo ikasturtean**.

Ikastetxe bakoitzaren berezko irakasgaiak ez dira zenbatuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan titulua lortzeko.

Ikasketak **berandu hasi dituztelako** edo **ikasketa batzuk atzerriko hezkuntza-sistemaren batean** egin dituztelako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osorik egin ez duten ikasleen kasuan, etaparen **azken kalifikazioa** kalkulatzeko, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako zatian lortutako kalifikazioak bakarrik hartuko dira kontuan**.

Curriculum-aniztasuneko programa bat egin ondoren etapa amaitzen duten ikasleen kasuan, **azken kalifikazioa** kalkulatzeko **ez dira kontuan hartuko** programan sartu **aurretik gainditu ez dituzten irakasgaietan** lortutako kalifikazioak, baldin eta irakasgai horiek abenduaren 22ko



236/2015 Dekretuaren 40.3 artikuluan aurreikusitako esparruren batean sartuta badaude eta ikasleek esparru horiek gainditu badituzte.

Azken kalifikazioa curriculum-aniztasuneko programan sartu ondoren ikasitako irakasgai eta esparru bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izango da, 1etik 10era bitarteko eskalan adierazia, bi hamartarrekin, ehunenera biribildua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluak aukera emango du Batxilergoko irakaskuntzetan, erdi-mailako Lanbide Heziketan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi-mailako lanbide-irakaskuntzetan eta erdi-mailako Kirol-irakaskuntzetan sartzeko, irakaskuntza bakoitzerako ezartzen diren betekizunen arabera.

Egindako ikasketen ziurtagiria

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten duten eta, oinarrizko konpetentziak eta etapako irakasgaien helburuak lortzen ez dituztelako, titulua lortzen ez duten ikasleek, estatu-mailako balioa duen ziurtagiri ofiziala jasoko dute, egokitutako irakasgaiak edo esparruak ikasten dituztenek bezala, baldin eta arlo egokituetako kalifikazio positiboak adierazten badu egokitzapen horretan jasotako ebaluazio-irizpideak gainditu direla, eta ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko eskatutako oinarrizko konpetentziak eta etapako helburuak gainditu direla. Ikaslea azken ikasturtean matrikulatuta egon den ikastetxeak emango du ziurtagiri hori.

– Ikasle batek Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean hasi behar duenean, egin dituen ikasketen ziurtagiria jasoko du, ikaslea azken ikasturtean matrikulatuta egon den ikastetxeak emango duena.